OTSOA DATOR!

Gaur Émile Jadoulen “Otsoa dator!” ipuina aurkezten dizuegu. Askotan kontatu dugu gelan. Umeei izugarri gustatzen zaie polita eta erraza delako, eta gainera pertsonaiak aurkezteko egitura errepikakorra erabiltzen du eta hori oso erakargarria egiten zaie adin hauetan. Bestalde, otsoa eta gainerako animaliak umeek azkar ezagutzen dituzten pertsonaiak dira.

Guri ipuin hau izugarri gustatzen zaigu estereotipoak apurtzen dituelako. Hau da, otsoa ilun, gaizto eta intentzio txarrezko pertsonaia irudikatzeko joera izaten da sarritan. Eta beti ez da horrelakoa!
Halaber, harridura erabiltzen du: umeek otso gaizto hau agertzen den beste ipuin batzuk ezagutzen dituzte eta horrela, ipuina kontatzen ari garen bitartean, agian otso bera dela uste dute. Baina, bat batean, otsoak lagunak dituela ohartzen dira, otsoa maite duten lagunak eta bere urtebetetzea ospatzeko ezusteko festa prestatu diotenak. Horrexegatik denok Oreinaren etxera korrika joaten ziren! Pertsona guztiok maitatuak eta onartuak sentitzeko eskubidea daukagu, nahiz eta batzuetan gaizki portatu...

Guri (eta umeei) otsoari “zorionak zuri” abestuz gustatzen zaigu ipuina bukatzea.

Estereotipoak apurtzeko eta gozatzeko ipuina. Laster arte!